58-109	Alfanumerikoa	<u>AURKEZLEAREN EGOITZA</u> Eremu honetan bederatzi atal daude: 58-59 SG: Bide publikoaren siglak. 60-79 BIDE PUBLIKOA: Bide publikoaren izena. Letraz idatzi behar da; hau da, izenean zenbakiren bat badago, zenbakia letraz idatzi behar da (adibidez: maiatzaren 2a maiatzaren bira idatzi behar da). Errepidea bada, km laburdurarekin amaituko da. 80-84 ZENBAKIA: Etxearen zenbakia edo kilometro puntua (hamartarrik gabe). Zenbakiz idatzi behar da bost zuriunetan. 85-86 ESKAILERA 87-88 SOLAIRUA 89-90 ATEA

		91-95	POSTA KODEA: Aurkezlearen egoitzarena eman behar da. Zenbakiz idatzi behar da bost zuriunetan.
		96-107	UDALERRIA: Hamabi zuriuneko eremua. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baditu, lehenengo hamabiak idatzi behar dira, artikulurik eta preposiziorik gabe.
		108-109	PROBINTZIAREN KODEA: Zenbakiz bete behar da, hartutako enregistrazio (2 mota) PROBINTZIAREN KODEA eremurako ezarritako irizpide bera aplikatuz.
110-114	Numerikoa	<u>AITORTZAILEAK, GUZTIRA</u> Bost zuriune; kopurua zenbakiz eman behar da. Taldeko euskarrian guztira zenbat pertsona eta erakunde aitortzaile dauden zehaztu behar da (gabatutako 1 motako enregistrazioen kopurua).	
115-123	Numerikoa	<u>HARTUTAKOAK, GUZTIRA</u> Bederatzi zuriune; kopurua zenbakiz eman behar da. Taldeko euskarrian guztira hartutako zenbat kopuru dauden zehaztu behar da. Kopurua bat etorri behar da euskarriko 1 motako enregistrazioetako (aitortzaileen enregistrazioak) 136-144 zuriuneetan ezarritako zenbatekoen baturarekin (gabatutako 2 motako enregistrazioen kopurua).	
124	Alfabetikoa	<u>EUSKARRI MOTA</u> Gako hauetako bat jarri behar da: "C": Informazioa DVD-R edo DVD+R euskarrian aurkezten da. "T": Euskarria baliabide telematikoen bidez aurkezten da.	
125-173	Alfanumerikoa	<u>HARREMANETARAKO PERTSONA</u> Harremanetarako pertsonaren datuak. Bi atal daude: 125-133 TELEFONOA: Bederatzi zuriune; zenbakiz eman behar da. 134-173 ABIZENAK ETA IZENA: Aitortzailearentzat 1 motako enregistrazioan zehaztutako irizpide berarekin bete behar da.	
174-487	-----	<u>HUTSIK</u>	

488-500 Alfanumerikoa

ZIGILU ELEKTRONIKOA

Eremu hau taldeko laburpenei zigilu elektronikoa jartzeko da. Horretarako AFaren programa ofizialak erabili behar dira. Bestela, hutsik utzi behar da.

- Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak hutsik utzi behar dira.
- Eremu numerikoak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.
- Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinaldean hutsik utzi, eta letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan kontrakorik azaldu ezean.

190 EREDUA**B. 1 ERREGISTRO MOTA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA.**

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Numerikoa	<u>ERREGISTRO MOTA</u> Finkoa: "1"
2-4	Numerikoa	<u>AITORPEN EREDUA</u> Finkoa: 190
5-8	Numerikoa	<u>EKITALDIA</u> Aitorpenaren zerga ekitaldiaren lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	<u>AITORTZAILEAREN IFZ</u> Aitortzailearen IFZ adierazi behar da uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, IFZren inguruko betebeharrak arautzen dituenak, ezartzen dituen arauekin bat etorritik (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa). Eremu hau eskuinean lerrotatu behar da. Azken zuriunean kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerrekoak zeroz bete.
18-57	Alfanumerikoa	<u>AITORTZAILEAREN ABIZENAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA</u> Pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar da: lehenengo abizena, hutsune bat utzi, gero bigarren abizena, beste hutsune bat, eta azkenean izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez. Pertsona juridikoa edo errentak esleitzeko araubidean dagoen erakundea bada, sozietatearen izen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe. Eremu honetan ezin da idatzi merkataritzako izenik.
58	Alfabetikoa	<u>EUSKARRI MOTA</u> Gako hauetako bat jarri behar da: "C": Informazioa DVD-R edo DVD+R euskarrian aurkezten da. "T": Euskarria baliabide telematikoen bidez aurkezten da.
59-107	Alfanumerikoa	<u>HARREMANETARAKO PERTSONA</u> Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu honetan bi atal daude: 59-67 TELEFONOA: Bederatzi zuriune; zenbakiz eman behar da.

108-120	Numerikoa	<p>68-107 ABIZENAK ETA IZENA: Lehen abizena, zuriune hutsa, bigarren abizena, beste zuriune bat hutsik, eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez.</p> <p><u>AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA</u></p> <p>Aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.</p> <p>13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.</p> <p>Zenbaki sekuentziala izan behar da; lehenengo hiru digituak 190 izan behar dira (ereduaren kodea).</p>
121-122	Alfabetikoa	<p><u>AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA</u></p> <p>Aparteko kasuetan, bigarren aitorpena edo ondoko besteren bat aurkeztuz gero, eremu hauetako bat bete behar da nahitaez:</p> <p>121 AITORPEN OSAGARRIA: Aitorpen berriaren xedea lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan arren bertan oso-osorik jarri gabe geratu ziren hartutako kopuru batzuk eranstea bada, "C" idatzi behar da.</p> <p>122 ORDEZKO AITORPENA: Aitorpenaren xedea ekitaldi bereko aurreko beste aitorpen bat osorik deuseztatzea eta ordeztea bada, "S" idatzi behar da. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bat bakarrik deuseztatu dezake.</p>
123-135	Numerikoa	<p><u>AURREKO AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA</u></p> <p>"AITORPEN OSAGARRIA" eremuan "C" jarri bada edo "S" "ORDEZKO AITORPENA" eremuan, ordeztutako edo osatutako aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.</p> <p>13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.</p> <p>Gainerako kasuetan ZEROAK idatzi behar dira.</p>

136-144	Numerikoa	<u>HARTUTAKOAK, GUZTIRA</u>
		Aitortzaileari euskarrian guztira aitortutako jasotako kopuruen zenbatekoa zehaztu behar da, beraien gakoak edo azpigakoak aintzat hartu gabe (2 motako erregistroen kopurua).
145-160	Alfanumerikoa	<u>HARTUTAKOEN ZENBATEKOA, GUZTIRA</u>
		Eremu honetan bi atal daude:
		145 ZEINUA: Eremu alfabetikoa; ordaindutako kopuruen batura (1 motako erregistroko 146-160 zuriuneak) 0 (zero) baino gutxiago denean adierazi behar da. Hala denean, "N" idatzi behar da; gainerako kasuetan hutsik utzi behar da.
		146-160 ZENBATEKOA
		Eremu numeriko honetan ordaindutako kopuru guztien zenbatekoen batura jaso behar da, hamartarrik gabe, hau da, hartutako kopuruen erregistroetako 82-94 eta 109-121 bitarteko zuriuneetan jarritako zenbateko guztien batura, hartutako kopuruen gakoak aintzat hartu gabe. Baldin eta hartzaileen erregistroko HARTUTAKO OSOAREN ZEINUA eremuan edo GAUZATAN HARTUTAKOAREN ZEINUA eremuan (2 motako erregistroa, 81. zuriunea eta 108. zuriunea, hurrenez hurren) "N" ipini bada (aurreko ekitaldi batean bidegabe jasotakoaren edo jasotako gehiegizko ordainketaren itzulketa), zenbatekoa minus ikurrarekin konputatu behar da batuketan.
		Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.
		Eremu honetan bi atal daude:
		146-158: Hartutako kopuruen guztirako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.
		159-160: Hartutako kopuruen guztirako zenbatekoaren hamartarrak. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

161-175 Numerikoa ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK, GUZTIRA

Hartutako kopuruen erregistroetako EGINDAKO ATXIKIPENAK eta EGINDAKO KONTURAKO SARRERAK eremuetan (95-107 bitarteko zuriuneak eta 122-134 bitartekoak, hurrenez hurren) jarritako kopuruen batura adierazi behar da, zeinurik gabe eta hamartarrik gabe, eta hartutako kopuruen gakoak eta azpigakoak aintzat hartu gabe.

Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.

Eremu honetan bi atal daude:

161-173. Atxikipenen eta konturako sarreraren guztirako zenbatekoaren zati osoa. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

174-175. Atxikipenen eta konturako sarreraren guztirako zenbatekoaren hamartarrak. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

176-487

Hutsik

488-500

Alfanumerikoa

ZIGILU ELEKTRONIKOA

Eremu hau banakako euskarriei zigilu elektronikoa jartzeko da. Horretarako AFAREN programa ofizialak erabili behar dira. Bestela, eta taldeko euskarria aurkezten denean, hutsik utzi behar da.

- Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.
- Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak hutsik utzi behar dira.
- Eremu numerikoak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.
- Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinaldean hutsik utzi behar dira. Letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan besterik azaldu ezean.

190 EREDUA

C.- 2 MOTAKO ERREGISTROA: HARTUTAKO KOPURUEN ERREGISTROA

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Numerikoa	<u>ERREGISTRO MOTA</u> Finkoa: "2"
2-4	Numerikoa	<u>AITORPEN EREDUA</u> Finkoa: "190"
5-8	Numerikoa	<u>EKITALDIA</u> 1 motako erregistroko zuriune hauetan dagoena idatzi behar da.
9-17	Alfanumerikoa	<u>AITORTZAILEAREN IFZ</u> 1 motako erregistroko zuriune hauetan dagoena idatzi behar da.
18-26	Alfanumerikoa	<u>HARTZAILEAREN IFZ</u> Pertsona fisikoa bada, beraren IFZ adierazteko uztailearen 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, IFZren betebeharrak arautzen dituenak, ezartzen dituen arauak bete behar dira (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa). Errentak esleitzeko araubidean dagoen erakundea bada (ondasun erkidegoa, sozietate zibila, jaso gabeko jaraunspena, etab.), beraren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. 14 urtetik beherako hartzailea zergen arloko harremanetan edo zergetan eragina duten harremanetan identifikatzeko, beraren datuak (identifikazio fiskaleko zenbakia barne) eta legezko ordezkariarenak (aita, ama edo tutorea) eman behar dira. Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da, azken zuriunean kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerreko zuriuneak zeroz bete behar dira.
27-35	Alfanumerikoa	<u>LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ</u> Hartzaileak 14 urte baino gutxiago baditu, eremu honetan beraren legezko ordezkariaren (aita, ama edo tutorea) identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da, uztailearen 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, IFZren betebeharrak arautzen dituenak, ezartzen dituen arauekin bat etorritik

(ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa).

Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da, azken zuriunean kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerreko zuriuneak zeroz bete behar dira.

Gainerako kasuetan hutsik utzi behar da.

36-75 Alfanumerikoa

HARTZAILEAREN ABIZENAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA

a) Pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar dira: lehen abizena, hutsune bat, bigarren abizena, hutsune bat, eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez.

b) Errentak esleitzeko araubidean dagoen erakundea bada, beraren izen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe.

76-77 Numerikoa

PROBINTZIAREN KODEA

a) Oro har, hartzailearen egoitza dagoen probintziaren edo hiri autonomoaren kodea sartu behar da (bi digitu numeriko). Hona hemen kodeen taula:

ALBACETE	02	JAEN	23
ALACANT	03	LEÓN	24
ALMERIA	04	LLEIDA	25
ARABA	01	LUGO	27
ASTURIAS	33	MADRIL	28
AVILA	05	MALAGA	29
BADAJOS	06	MELILLA	52
BARTZELONA	08	MURTZIA	30
BIZKAIA	48	NAFARROA	31
BURGOS	09	OURENSE	32
CACERES	10	PALENCIA	34
CADIZ	11	LAS PALMAS	35
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36
CASTELLO	12	ERRIOXA	26
CEUTA	51	SALAMANCA	37
CIUDAD REAL	13	S.C.TENERIFEKOA	38
KORDOBA	14	SEGOVIA	40
A CORUÑA	15	SEVILLA	41
CUENCA	16	SORIA	42
GIPUZKOA	20	TARRAGONA	43
GIRONA	17	TERUEL	44
GRANADA	18	TOLEDO	45
GUADALAJARA	19	VALENTZIA	46
HUELVA	21	VALLADOLID	47
HUESCA	22	ZAMORA	49
BALEAR UHARTEAK	07	ZARAGOZA	50

b) Kasu berezia.- Ohiko egoitza atzerrian duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergapekoek, zergaren Foru Arauko 4. artikuluan aipatzen direnek (Espainiako misio diplomatikoetako kideak, Espainiako bulego kontsularretako kideak, etab.) eta 10.2 artikuluan aipatzen direnek jasotako hartutako kopuruak 98 kodearekin agertu behar dira.

190 ereduan inolaz ere ezin dira agertu egoitza Espainiako lurraldean eduki ez eta PFEZ-en zergadun ez diren pertsonen edo erakundeen kopuruak. Hala ere, behar denean, hartutako kopuru horien informazioa sartu behar da ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenean (296 eredu).

HARTUTAKO KOPURUAREN GAKOA

Hartutako kopurua nolakoa den zehazten duen gako alfabetikoa jarri behar da; hona gakoaren zerrenda:

A Lanaren etekinak. Besteren konturako langileak, oro har.

Gako hau erabili behar da pertsona edo erakunde aitortzaileek lanaren etekin gisa dirutan zein gauzatan ordaindu dituzten kopuru guztiak zerrendatzeko, baldin eta atxikipenaren zenbatekoa zehazteko Zergaren Araudiko 83. eta 84. artikuluetan xedatutako prozedura orokorra erabili bada eta ordainketei B edo C gakoa ezarri behar ez bazaie Beraz, gako honetan bilduko dira, halaber, enplegatzailearekin noizean behin eta egunero aritzearen ondoriozko ordainsariak giza lan edo eguneko lansaritan jasotzen dituzten eskulangileen sarrerak, bai eta lanaren etekinak menpeko lan harremanen ondorioz jasotzen dituzten hartzaileenak eta urtebetetik beherako lan kontratu edo erlazioa duten hartzaileenak ere.

Salbuespena: lanaren etekin batzuk ez dira sartu behar 190 ereduan, hain zuzen ere gauzatan jasotzen diren ordainsariak, baldin eta Zergaren Araudiko 78.j) artikulua araberaz ez badago konturako sarrerarik egin beharrik (enpresek borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetara, pentsio planetara, enpresarien gizarte aurreikuspeneko planetara edo gizarte aurreikuspeneko

mutualitateetara egindako kontribuzioak edo ekarpenak, zerga oinarria murrizten dutenak). Nolanahi ere, kontzeptu horien datuak 345 ereduan adierazi behar dira.

B Pentsiodunak eta hartzeko pasiboen eta Zergaren Foru Aginduko 18.a) artikuluan xedatutako gainerako prestazioen hartzaileak.

Gako honekin sartu behar dira Gizarte Segurantzako araubide publikoen eta klase pasiboen barne dauden pentsio eta sarrera pasiboei dagozkien kobrantzak, PFEZren kargatik salbuetsita ez badaude, bai eta Zergaren Foru Arauko 18.a) artikuluan aipatzen diren gainerako prestazioak ere, diruzkoak zein gauzazkoak.

AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.

C Langabezia prestazioak eta laguntzak.

Gako honekin langabeziagatik kobratutako prestazioak eta laguntzak azaldu behar dira, ondoko hauek izan ezik: ordainketa bakarreko modalitatean kontzeptu honengatik ordaindutako prestazioak.

E Kontseilariak eta administratzaileak.

Gako honekin administrazio kontseilu edo batzarretako administratzaile edo kide diren pertsona fisikoei dirutan zein gauzatan ordaindutako ordainsariak agertu behar dira, bai eta gainerako ordezkariak organoetako kideei ordaindutakoak ere.

AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.

F Ikastaroak, hitzaldiak, mintegiak eta antzekoak, eta obra literarioak, artelanak edo lan zientifikoak.

Gako honekin agertu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak ikastaro, hitzaldi, solasaldi, mintegi eta antzekoetan parte hartzeagatik edo literatura, arte edo zientzia lanak egiteagatik ordaindutako kopuruak, diruzkoak zein gauzazkoak.

AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.

G Jarduera ekonomikoen etekinak: jarduera profesionalak.

Gako honekin sartu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak jarduera ekonomiko profesionalen (Zergaren

Araudiko 92.1 artikuluko 1. eta 2. paragrafoak) kontraprestazio modura dirutan zein gauzatan ordaindutako kopuruak, "F" gakoarekin sartu behar direnak ez beste guztiak.

AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.

H Jarduera ekonomikoen etekinak: nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak eta zenbatespen objektiboaren araubidean dauden enpresa jarduerak, Zergaren Araudiko 92.6 artikuluan xedatutakoaren arabera atxikipena aplikatu behar zaienak.

Gako honekin sartu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak ondoko jarduera ekonomikoen kontraprestazio gisa dirutan zein gauzatan ordaindutako kopuruak:

- a) Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak, Zergaren Araudiko 92. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan aipatzen direnak. Jarduera hauei dagokienez, ez dira zenbatuko dirulaguntza arruntak (kapitalekoak), ez eta kalte ordainak ere (egonez gero, 346 erudian aitortu behar dira).
- b) Zergaren Araudiko 92. artikuluko 6. paragrafoan ezartzen denaren arabera zenbatespen objektiboaren araubidean dauden jarduera ekonomikoak.

AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.

I Jarduera ekonomikoak. Zergaren Araudiko 77.2.b) artikuluan aipatzen diren etekinak.

Gako honekin sartu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak jabetza intelektual edo industrialagatik, laguntza teknikoa emateagatik, ondasun higigarri, negozio edo meategien errentamenduagatik edo azpierrementamendugatik ordaindutako etekinak eta irudi eskubidea ustiatzeko eskubidearen lagapenetik sortutakoak direla eta dirutan zein gauzatan ordaindutakoak, baldin eta etekinak hartzaileak egindako jarduera ekonomiko batek sortu baditu.

J Irudi eskubideak lagata eskuratutako errenten egozketa.

Gako honekin sartu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak egoitza Espainian ez duten pertsoneri eta erakundeei dirutan zein gauzatan ordaindutako kontraprestazioak, konturako sarrera egin beharra dakartenak.

Gako honekin ezartzen diren kopuruetan, hartzailearen IFZren eremuan irudi eskubideak lagata eskuratutako errentak PFEZ-en zerga oinarriari egotzi behar dizkion pertsona fisiko egoiliarrena jarri behar da.

K Sariak.

Gako honekin identifikatu behar dira atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar zaizkien errenta hauek:

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren Araudiko 77.2.c) artikuluan aipatzen diren sariak, pertsona edo erakunde aitortzaileak dirutan zein gauzatan emandakoak jasotzaileak joko, lehiaketa, zozketa eta konbinazio aleatorioetan parte hartu ondoren, are atxikipen oinarria 300 euro baino gehiago ez izateagatik atxikipenik ez konturako sarrerarik egin beharrik sortzen ez duten sariak ere.

Aldiz, ondoko hauek ez dira agertu behar gako honekin: loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarenak, hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen duena, jasaten duten sariak, bai eta otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege Dekretuak, zorte, enbete edo zori jokoaren eta apustuen alderdi penal, administratibo eta fiskalak arautzen dituenak, eta jokoaren gaineko Estatuko eta Autonomia Erkidegoko arauak ezartzen dutenaren itzalpean antolatutako jokoetan ematen diren sariak ere.

L Salbuetsitako errentak eta kargarik gabeko sariak.

Gako honekin agertu behar dira Zergaren Araudiko 13. artikuluan ezarritakoaren arabera kargatik salbuetsita dauden bidaia gastuetarako sariak eta diru kopuruak, bai eta PFEZetik salbuetsitako lanaren errentak eta Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluan xedatutakoaren arabera

79-80

Numerikoa

salbuetsita dauden jarduera ekonomikoen etekinak ere.

Bidaia gastuetarako dieta eta diru kopuruen kasuetan, eta salbuespenak zenbateko muga daukan kasuetan, pertsona edo erakunde aitortzaileak legez edo arauz ezarritako muga baino gehiago ordaindu badu, soberakina lehen aipatutako gakoarekin agertu behar da (bidezkoa bada, baita azpigakoarekin ere).

AZPIGAKOIA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.

AZPIGAKOIA

B, E, F, G, H, I edo **L** gakoa duten kopuruei dagokienez, gakoaz gainera azpigakoa (zenbakia) ere jarri behar da. Ondoren gako bakoitzeko azpigakoak zerrendatuko dira, bakoitza bere azalpenarekin. Beste gako batzuetako kopuruetan eremu hau ez da bete behar.

B gakoa duten kopuruak zehazteko **azpigakoak**:

- 01** azpigakoa: Erretiro arruntagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordezkotako erakundeen prestazioak, eta klase pasiboen araubidekoak.
- 02** azpigakoa: B gakoaren gainerako azpigakoetan ez dauden kopuruak.
- 04** azpigakoa: 55 urtetik gorako erabateko ezintasunagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordezkotako erakundeen prestazioak, eta klase pasiboen araubidekoak.
- 05** azpigakoa: Aldi baterako ezintasunagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordezkotako erakundeen prestazioak, eta klase pasiboen araubidekoak.
- 06** azpigakoa: 55 urtetik beherako erabateko ezintasunagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordezkotako erakundeen prestazioak, eta klase pasiboen araubidekoak.
- 07** azpigakoa: Erretiro partzialagatik jasotzen diren GSINen eta

haren ordezko erakundeen prestazioak, eta klase pasiboen araubidekoak.

08 azpigakoa: Erretiro aurreratuagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordezko erakundeen prestazioak, eta klase pasiboen araubidekoak.

09 azpigakoa: Alarguntasun pentsioagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordezko erakundeen prestazioak, eta klase pasiboen araubidekoak.

20 azpigakoa: Borondatezko bajagatik BGAEek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak.

21 azpigakoa: erretiroagatik BGAEek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak.

22 azpigakoa: ezintasunagatik BGAEek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak.

23 azpigakoa: heriotzagatik BGAEek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak.

24 azpigakoa: mendekotasunagatik BGAEek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak.

25 azpigakoa: langabezialdi luzeagatik BGAEek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak.

26 azpigakoa: gaixotasun larriagatik BGAEek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak.

E gakoa duten kopuruak zehazteko **azpigakoak:**

01 Kontseilaria edo administratzailea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean dago besteren konturako langileekin berdinetara.

02 01 azpigakoa ezarri behar zaienak ez beste guztiak.

F gakoak duten kopuruak zehazteko **azpigakoak**:

01 Zergaren Araudiko 14.1.g) artikuluan zehaztutako literatura, zientzia eta arte sariengatik jasotako kopuruak, Zergaren kargatik salbuetsita ez daudenak.

02 01 azpigakoa ezarri behar zaienak ez beste guztiak.

G gakoak duten kopuruak zehazteko **azpigakoak**:

01 Zergaren Araudiko 92.1 artikuluan zehaztutako atxikipen tasa orokorra aplikatu ahal zaien etekinak.

02 Udalen zerga biltzaileei, merkataritza kolaboratzaileen edo agenteen zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru agenteei eta aseguru artekariari, eta Estatuko Loteria eta Apustuaren Enpresa-Entitate Publikoko lurralde delegatuei ordaindutako etekinetarako aurrean aipatutako Araudiko artikuluan ezarritako atxikipen tasa aplikatu behar zaien kopuruak.

03 Jarduera profesionalari ekiten dieten zergadunei jardueraren hasierako zergaldian eta hurrengo bietan ordaintzen zaizkien etekinetarako Zergaren Araudiko 92.1 artikuluan ezarritako atxikipen tasa murriztua aplikatu behar zaien etekinak.

04 Jarduera profesionaletan ari diren zergadunei ordaindutako etekinetarako Zergaren Araudiko zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritako atxikipen tasa aplikatu behar zaien kopuruak, baldin eta jarduerak aurreko ekitaldian sortutako etekin osoen bolumena 15.000 euro baino gutxiago bada eta zergadunak ekitaldi horretan jarduera ekonomikoekin eta lanarekin lortutako etekin guztien baturaren %75 baino gehiago bada.

H gakoa duten kopuruak zehazteko
azpigakoak:

- 01** Zergaren Araudiko 92.4 artikuluan zehaztutako atxikipen tasa orokorra aplikatu ahal zaien etekinak.
- 02** Txerri gizentzeko eta hegazi hazkuntzako abeltzaintza jardueren kontraprestazio diren etekinetarako Zergaren Araudiko 92.4 artikuluan ezarritako atxikipen tasa berezia aplikatzen zaien etekinak.
- 03** Zergaren Araudiko 92.5 artikuluan aipatzen diren basogintzako jardueren kontraprestazioak.
- 04** Zergaren Araudiko 95.6 artikuluan aipatzen diren zenbatespen objektiboaren araubideko jarduera ekonomikoen kontraprestazioak.

I gakoa duten kopuruak zehazteko
azpigakoak:

- 01** Irudi eskubidea ustiatzeko eskubidea lagata sortutako etekinak, pertsona edo erakunde aitortzaileak ordaindutakoak.
- 02** Zergaren Araudiko 98.2 artikuluan ezarritako atxikipen tasa aplikatu behar zaien etekinak.

L gakoa duten kopuruak zehazteko
azpigakoak:

- 01** Dietak eta bidaia gastuetarako kopuruak, Zergaren Araudiko 13. artikuluan ezarritakoaren arabera kargatik salbuetsita daudenak.
- 02** Terrorismo ekintzengatiko laguntza publikoak, Zergari buruzko Foru Arauak 9.1 artikuluan aipatzen dituenak.
- 03** Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 14. paragrafoan aipatzen dituen laguntzak.
- 04** 1936-1939ko gerra zibilean edo horren ondorioz jasandako lesio edo mutilazioengatik jasotzen diren pentsioak, hain zuzen ere Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 11. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
- 05** Langilea kaleratzeagatik edo lana utzarazteagatik jasotako kalte

ordainak, hain zuzen ere Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 5. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 7. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita daudenak.

- 06** Erabateko ezintasun iraunkorragatik edo ezintasun handiagatik jasotzen diren pentsioak, hain zuzen ere Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
- 07** Klase pasiboen araubideko ezereztasun edo ezintasun iraunkorragatik jasotzen diren pentsioak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen dituenak.
- 08** Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 9. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita dauden prestazioak, pentsioak eta hartzeko pasiboak.
- 09** Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 10. paragrafoan aipatzen duen pertsonen harrera dela eta erakunde publikoek emandako prestazio ekonomikoak.
- 10** Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 9. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita dauden beka.
- 11** Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 8. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita dauden literatura, zientzia eta arte sariak.
- 12** Goi mailako kirolarientzako dirulaguntzak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 15. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 9. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita daudenak.
- 13** Ordainketa bakarrean jasotzen diren langabezia prestazioak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 13. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
- 14** Nazioarteko bake misioetan edo gizaldek misioetan parte hartzeagatik ordaindutako aparteko haborokinak, Zergari buruzko Foru Arauak 9.

artikuluko 16. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 10. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita daudenak.

- 15 Atzerrian egindako lanengatik jasotako etekinak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 17. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 11. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita daudenak.
- 16 Hilobiratze edo ehorzketagatik jasotako prestazioak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 22. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
- 17 Osasun sistema publikoan tratamendua jasotzearen ondorioz C hepatitisa garatu duten pertsonentzako dirulaguntzak, Zergari buruzko Foru Arauak 14. artikuluan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
- 18 Pertsona ezinduek beraien alde eraturako gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen ondorioz errenta gisa eskuraturako prestazioak, Zergari buruzko Foru Arauak 26. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
- 19 Beregaintasun pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran bizi diren pertsonen laguntzeko legeak mendekotasun egoeran daudenak etxean bertan zaintzeko xedaturako prestazio ekonomikoak, Zergari buruzko Foru Arauak 26. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
- 20 Jaiotzarekin, adopzioarekin, harrerarekin edo adingabeko seme-alabak zaintzarekin lotutako familia prestazioak eta laguntzak.
- 21 Salbuetsitako beste errenta batzuk. Azpigako honekin zerrendatu behar dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargatik salbuetsita egonik 190 erduan aitortu behar diren errentetatik aurreko eta geroagoko azpigakoetan berariaz adierazten ez direnak.

31 Erabateko ezintasun iraunkor edo partzialagatik emandako prestazioak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.

81-107 Alfamerikoa

DIRUTAN HARTUTAKOAK

Eremu honetan hiru atal daude:

81 Hartutako osoaren zeinua: eremu hau kopurua aurreko ekitaldi batean bidegabe edo behar baino gehiago jaso eta hartzaileak itzulita jaso denean bete behar da. Hala denean, "N" idatzi behar da; gainerako kasuetan hutsik utzi behar da.

82-94 HARTUTAKOA, OSORIK:

13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.

Hartzaile bakoitzari urtean dirutan guztira ordaindutako kopurua jarri behar da, zeinurik gabe eta hamartarrik gabe.

Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.

Eremu honetan bi atal daude:

82-92 Guztira hartutako zenbatekoaren zati osoa. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

93-94 Guztira hartutako zenbatekoaren zati hamartarra. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

95-107 EGINDAKO ATXIKIPENAK:

13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.

Aurreko eremuan adierazitako diru kopuruak direla eta urtean PFEZen kontura benetan atxikitako zenbatekoa zehaztu behar da, zeinurik gabe eta hamartarrik gabe. Hartzailearen bati atxikipenik egin ez bazaio, eremu hau zeroz bete behar da.

Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.

Eremu honetan bi atal daude:

95-105 Egindako atxikipenen zenbatekoaren zati osoa. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

108-147	Alfanumerikoa	106-107 Egindako atxikipenen zenbatekoaren hamartarrak. Ez badago, zeroak jarri behar dira.
		<p><u>GAUZATAN JASOTAKOAK</u></p> <p>Eremu honetan lau atal daude:</p> <p>108 Gauzatan hartutakoaren zeinua: eremu hau hartzaileak aurreko ekitaldietan gauzatan jasotakoak itzultzen dituenen bete behar da. Hala denean, "N" idatzi behar da; gainerako kasuetan hutsik utzi behar da.</p> <p>109-121 BALORAZIOA:</p> <p>13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.</p> <p>Hartzaileari ekitaldian gauzatan egindako ordainketen balorazioen batura zehaztu behar da, zeinurik gabe eta hamartarrik gabe. Balorazioak Zergaren Foru Arauak 60. artikuluan ezartzen duenaren arabera egin behar dira, kontura egindako sarreraren zenbatekoa sartu gabe.</p> <p>Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.</p> <p>Eremu honetan bi atal daude:</p> <p>109-119 Balorazioaren zenbatekoaren zati osoa. Ez badago, zeroak jarri behar dira.</p> <p>120-121 Balorazioaren zenbatekoaren hamartarrak. Ez badago, zeroak jarri behar dira.</p> <p>122-134 KONTURA EGINDAKO SARRERAK:</p> <p>13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.</p> <p>Aurreko eremuan adierazitako gauzatan jasotakoak direla eta urtean ordaintzaileak egindako konturako sarreraren zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik gabe eta hamartarrik gabe.</p>

			Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.
			Eremu honetan bi atal daude:
		122-132	Egindako konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa. Ez badago, zeroak jarri behar dira.
		133-134	Egindako konturako sarreraren zenbatekoaren hamartarrak. Ez badago, zeroak jarri behar dira.
135-147			JASANARAZITAKO KONTURAKO SARRERAK 13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. Ordainsariak gauzatan ordaindu dituenak hartzaileari urtean jasanarazitako konturako sarreraren zenbatekoa jarri behar da, zeinurik gabe eta hamartarik gabe.
			Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.
			Eremu honetan bi atal daude:
		135-145	Jasanarazitako konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa. Ez badago, zeroak jarri behar dira.
		146-147	Jasanarazitako konturako sarreraren zenbatekoaren hamartarrak. Ez badago, zeroak jarri behar dira.
148-151	Numerikoa		<u>SORTZAPEN EKITALDIA</u> Eremu hau ondoko kasuetan soilik bete behar da: a) Urteko laburpenean agertzen den kopururen bat aurreko ekitaldi batean sortutako edo eskatu beharreko atzerakina denean. Halakoetan, bidezko gainerako datuak adierazteaz gainera sortzapen

ekitaldiari dagozkion lau zenbakiak ere jarri behar dira.

Hartzaile bati hainbat ekitalditan sortutako kopuruak ordaindu bazaizkio, horien zenbatekoa, bai eta egindako atxikipenena edo kontura egindako sarrerena ere, hainbat idaztoharretan (erregistrotan) banakatu behar da. Hain zuzen ere, idaztohar bakoitzean ekitaldi bakar bateko kopuruak eta atxikipenak edo kontua egindako sarrerak soilik agertuko dira.

b) 190 ereduan hartzaileek aurreko ekitaldietan bidegabe hartu edo behar baino gehiago hartu eta ekitaldian zehar itzultako kopuruak sartzen direnean.

Hala gertatzen denean, itzulketa bakoitza bidegabe edo behar baino gehiago ordaindutako kopurua sartu zen gako eta azpigako beraiekin agertu behar da, eta haren zenbatekoa "Hartutakoa, osorik" edo "Balorazioa" eremuan adierazi behar da, "Hartutako osoaren zeinua" eremuan edo "Balorazioaren zeinua" eremuan "N" jarri, "Egindako atxikipenak" edo "Kontura egindako sarrerak" eremuan (0), eta "Sortzapenaren ekitaldia" eremuan itzultako kopurua sortu zen urtea.

Gainera, itzultako kopuruaren datuetan (190 ereduan adierazitakoetan) kopururen bat sartu bada "PFEZen integratu behar ez den zenbatekoa" eremuan, benetan itzultakoaren zenbatekoa jarri behar da, zeinurik gabe.

Pertsona edo erakunde batek hainbat ekitalditan sortutako kopuruak itzuli baditu, haien zenbatekoa hainbat idaztoharretan (erregistrotan) banakatu behar da. Hain zuzen ere, idaztohar bakoitzean ekitaldi bakar bateko kopuruaren itzulketak soilik zehaztu behar dira.

Bestela, eremua zeroz (0) bete behar da.

152	Numerikoa	Zuriune bakarreko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. Zeroa jarri behar da.
-----	-----------	---

153-254	Alfanumerikoa	<u>DATU GEHIGARRIAK</u> 153-157 Numerikoa 5 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. Zeroz bete behar da.
---------	---------------	---

158-166 Alfamerikoa 9 zuriuneko eremu alfamerikoa. Hutsik utzi behar da.

167 EZINTASUNA

Numerikoa

A, B edo C gakoak duten kopuruak soilik.

Hartzailearen ezintasun maila adierazten duen digitua jarri behar da; hona gakoak:

0 Hartzaileak ez dauka inolako ezintasunik edo, badauka, % 33 baino txikiagoa da.

1 Hartzailearen ezintasun maila % 33 eta % 65 bitartekoa da.

2 Ezintasuna % 33koa edo hortik gorakoa eta % 65etik beherakoa da, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen du) III. eranskinean zehaztutako baremoaren A), B) edo C) ataletan jasotako egoeretako batean dago edo alpatu baremo horretako D), E), F) edo H) ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago dauzka.

3 Hartzailearen ezintasun maila % 65ekoa edo handiagoa da.

168 KONTRATU (EDO HARREMAN) MOTA

Numerikoa

A gakoak du kopuruak bakarrik.

Jardunean dauden besteren konturako langileen kasuan, hartzailearen eta pertsona edo erakunde atxikitzailearen artean dagoen kontratu edo harreman mota adierazten duen kode numerikoa jarri behar da; hona zerrenda:

1 Izaera orokorreko kontratua edo harremana (ondoko zenbaki kodeetan jasotzen ez

diren egoera guztiak hartzen ditu).

- 2 Urtebete baino laburragoa den kontratua edo harremana, 4 kodekoak izan ezik.
- 3 Menpeko izaerako kontratu edo lan harreman berezia, presoek espetxeetan lortutako etekinak eta elbarriekiko lan harreman bereziak salbu (1 kodekoak dira).
- 4 Ordainsariak egunez eguneko peoi sarien edo lansarien bidez jasotzen dituzten esku langileek (nagusiekin) dituzten noizbehinkako harremanak, Zergaren Araudiak 84.3 artikuluko 2. erregelari aipatzen dituenak.

Ekitaldi batean hartzaile bati hainbat motatako kontratu edo harremanen ondoriozko kopuruak ordaindu bazaizkio, ordaindutako kopuruen zenbatekoa, eta egindako atxikipenena edo konturako sarrerena, hainbat idaztoharretan (erregistroak) banakatu behar dira: bakoitzean kontratu edo harreman mota bati dagozkion ordainketak, atxikipenak edo konturako sarrerak bakarrik ezarri behar dira.

Hala ere, urtebete baino laburragoa den aldi baterako kontratu bat ekitaldian zehar kontratu mugagabe bihurtzen bada, guztira ordaindutako zenbatekoa eta egindako atxikipenen edo konturako sarrerena idaztohar (erregistro) bakar batean zehaztu behar dira: harreman edo kontratu motaren kodea 1 izango da.

169-170 Numerikoa 2 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.

Zeroz bete behar da.

171-183 PFEZen SARTZEN EZ DEN ZENBATEKOA

Numerikoa

Hartaileari ordaindu zaizkion kopuruetakoki bati 33/2013 Foru Arauak, PFEZenak, 19.2 eta 25.4 artikuluetan, hogeita batgarren xedapen gehigarrian eta zazpigarren xedapen iragankorrean ezartzen duena aplikatu ahal bazaio, eremu honetan eskuratutakoaren eta PFEZen aitortzearen egotzi beharreko etekin osoaren zenbatekoaren arteko diferentzia zehaztu behar da, zeinurik gabe eta hamartarik gabe.

Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.

Eremu honetan bi atal daude:

171-181 PFEZen sartzen ez den zenbatekoaren zati osoa. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

182-183 PFEZen sartzen ez den zenbatekoaren zati hamartarra. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

184-196 GASTUAK (33/2013 FA, 22.a artikulua)

Numerikoa

A, B, C edo E.01 gakoak duten kopuruak soilik.

Eremu honetan Zergaren Foru Arauak 22. artikuluko a) letran aipatzen dituen kontzeptuengatik pertsona edo erakunde ordaintzaileak urtean ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da, zeinurik gabe eta hamartarik gabe.

Aparteko kasuetan, eremu hau L.05 edo L.10 gakoak duten kopuruaren gastuak adierazteko ere erabil daiteke, baldin eta, PFEZen kargatik salbuetsita egon arren, aipatu kontzeptuengatik gastu kengarriak izan badituzte.

Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.

Eremu honetan bi atal daude:

184-194 Gastuen enbatekoaren zati osoa. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

195-196 Gastuen enbatekoaren zati hamartarra. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

197-209 EZKONTIDEARENTZAKO KONPENTSAZIO PENTSIOAK

Numerikoa

A, B edo C gakoa duten kopuruak soilik.

Hartzaileak, epailearen ebazpenaren arabera, bere ezkontideari urtero ordaindu behar dion pentsioaren zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik gabe eta hamartarrik gabe.

Bestela, eremua zeroz (0) bete behar da.

Zenbatekoak EUROETAN eman behar dira.

Eremu honetan bi atal daude:

197-207 Ezkontidearentzako konpentsazio pentsioaren zati osoa. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

208-209 Ezkontidearentzako konpentsazio pentsioaren zati hamartarra. Ez badago, zeroak jarri behar dira.

210-226 Numerikoa 17 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.

Zeroz bete behar da.

227-228 ONDORENGOAK, GUZTIRA

Numerikoa

Hartzaileari Zergaren Foru Arauak 79. artikuluan ezartzen duen kenkaria aplikatzeko

eskubidea ematen dioten
ondorengoen kopurua, guztira.

229-254 26 zuriuneko eremua, zenbakiz
bete beharrekoa.

Zeroz bete behar da.

255-500

HUTSIK

- Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.
- Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak hutsik utzi behar dira.
- Eremu numerikoak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.
- Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinaldean hutsik utzi behar dira. Letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan besterik azaldu ezean.

190 EREDUA
1 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

ERREGISTRO MOTA		AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		EUSKARRI MOTA		PERTSONA	
EREDUA		AITORTZAILEAREN IFZ		EUSKARRI MOTA		TELEFONOA	
EKITALDIA		AITORTZAILEAREN IZEN ABIZENAK EDO SOZLETATE IZENA		EUSKARRI MOTA		TELEFONOA	
1	1	0					
2	3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	32	33
34	35	36	37	38	39	40	41
42	43	44	45	46	47	48	49
50	51	52	53	54	55	56	57
58	59	60	61	62	63	64	65

HARREMANETARAKO PERTSONA		AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA	
ABIZENAK ETA IZENA		ORDEZKO AITORTZENA	
AURREKO AITORTZAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA		ORDEZKO AITORTZENA	
66	67	68	69
70	71	72	73
74	75	76	77
78	79	80	81
82	83	84	85
86	87	88	89
90	91	92	93
94	95	96	97
98	99	100	101
102	103	104	105
106	107	108	109
110	111	112	113
114	115	116	117
118	119	120	121
122	123	124	125
126	127	128	129
130			

AURREKO AITORTZAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA		HARTUTAKOAK, GUZTIRA		HARTUTAKOAREN ZENBATEKOA, GUZTIRA		ATXIKIPEKAK ETA KONTURAKO SARRERAK, GUZTIRA	
ZENBATEKOA		ZENBATEKOA		ZENBATEKOA		ZENBATEKOA	
OSOA		OSOA		OSOA		OSOA	
HAMARRTA RRA		HAMARRTA RRA		HAMARRTA RRA		HAMARRTA RRA	
131	132	133	134				
135	136	137	138				
139	140	141	142				
143	144	145	146				
147	148	149	150				
151	152	153	154				
155	156	157	158				
159	160	161	162				
163	164	165	166				
167	168	169	170				
171	172	173	174				
175	176	177	178				
179	180	181	182				
183	184	185	186				
187	188	189	190				
191	192	193	194				
195							

196	197	198	199
200	201	202	203
204	205	206	207
208	209	210	211
212	213	214	215
216	217	218	219
220	221	222	223
224	225	226	227
228	229	230	231
232	233	234	235
236	237	238	239
240	241	242	243
244	245	246	247
248	249	250	251
252	253	254	255
256	257	258	259
260			

